

BILBOKO UDALAK HIRU MILIOI EURO BAINO GEHIAGO ERRESERBATU DITU HARROBI PLAZAREN ETA KONTZEPZIO KALEAREN ARTEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO

- **Gobernu Batzordeak gaur onetsi duen aurrekontu-partida ez da soilik izango 9,65eko metroko desnibela berdinduko duen igogailu bertikal panoramikoa egiteko, baizik eta Kontzezio kalea berrurbanizatzeko.**
- **Lanok datozen egunetan aterako dira lizitaziora, eta hamaika hilabeteko exekuzio-epea izango dute.**

(*Bilbo, 2023ko abenduaren 13a*).- **Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak gaur goizean onetsi du San Frantzisko auzoko Harrobi plazaren eta Kontzezio kalearen artean irisgarritasuna hobetzen eta arkitektura-oztopoak gainditzen lagunduko duten zenbait obra egiteko aurrekontu-partida.**

Gaur egun, 57 eskailera-maila dituen eskailera-sare baten bidez lotzen da eremu hori.

Zehazki, **3.196.403,06 euro** (BEZa barne) gorde dira datozen egunotan lizitaziora aterako den proiekturako. Behin hura esleituta eta obrak hasita, lanek **hamaika hilabeteko exekuzio-epea** izango dute.

IGOGAILU BERTIKAL PANORAMIKOA

Aurreikusitako lanek Harrobi plazaren eta Kontzezio kalearen artean dagoen elementu panoramiko bertikal bat gauzatzea aurreikusten dute, **9,65 metroko altuerako desnibela** gaindituko duena. **180º-ko bi geraleku izango ditu, eta goiko geralekutik irteteko 8 metroko pasabide bat ipiniko da.**

Kabinaren edukiera **13 lagunentzat** izango da, eta nukleo bertikal baten bidez gauzatuko da, egitura metalikoz. Beira xaflatuz estaliko da.

Igogailuaren berezko egiturez gain, hura kokatuko den espazioa egokitzeko, hormigoi armatuzko hormak egitea proiektatu da, enkofratuta, eta mikropiloteen gainean zimendatuta.

Igogailua **bideozaintza-sistema** batez hornituta egongo da, eta **babes-eskudelak eta -barandak** jarriko dira, bai eremuko eskailera guztietan, bai igogailuaren irteera-bideetan. Gainera, inguruko argiztapena indartuko da, LED motako proiektore eta luminarien bidez.

KONTZEPZIO KALEA BERRURBANIZATZEA

Igogailuaren obrak modu **sekuentzian** egingo dira Kontzezio kalea berrurbanizatzearekin batera, San Luis Meategia eta Agarre kaleen arteko zatian.

Ingurune horretan **zoladura berrituko da** –"Bilbo" motakoa, salbu eta oinezkoen pasabideak eta igogailu eta eskaileretarako sarbideak seinaleztatzeko eremuak, horietan ukipenezko baldosa jarriko baita–, bai eta **zintarriak** ere, granitozkoak izango baitira, eremuan egingo diren eskailera berriak bezala.

Gainera, Kontzezio kaleko zati horretako haurrentzako jolas-eremuen, elementu bio-osasungarrien eta lorategi-eremuen arteko **oinezkoen bideak asfalto urtu leunduz egingo dira**.

Berdeguneak sortuko dira eta hiri-altzariak eta zerbitzu-sareak ordeztuko dira. Era berean, haurrentzako jolasen eta jolas bio-osasungarrien elementu berriak instalatuko dira, eta haien gainazaletan kautxuzko zoladura jarriko da.

“ZUBIRIK” PLANA

Obra hauei esker, irisgarritasuna hobetuko da 5-lbaiondo barrutian. Obrak **“Zubirik” Planaren** barruan daude. Plan horren aurreikuspena da 7,3 milioi euro inbertitzea Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako Saila buru dela, “Zubirik 2025 Planak” bat egiten du [Bilboko Balioen Agiriarekin](#) eta 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta bat dator Kulturarteko Hirien Estatuko Sareko kide gisa Bilbok hartutako konpromisoarekin, kulturen arteko bizikidetzari balioa ematen dioten programen eta ekimenen bidez berdintasuna, errespetua, aniztasuna, bizikidetzeta eta elkarrekintzaren aldeko ekimen positiboak sustatzeko.

SARE SOZIALAK

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO RESERVA MÁS DE TRES MILLONES DE EUROS PARA LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD ENTRE LA PLAZA DE LA CANTERA Y LA CALLE CONCEPCIÓN

- La Junta de Gobierno ha aprobado hoy la partida presupuestaria que se destinará no solo a la ejecución de un ascensor vertical panorámico que salvará un desnivel de 9,65 metros de altura, sino también a la reurbanización de la calle Concepción.
- Estos trabajos, que saldrán a licitación en los próximos días, tienen un plazo de ejecución de once meses.

(Bilbao, a 13 de diciembre de 2023).- La Junta de Gobierno del Ayuntamiento de Bilbao ha aprobado en su sesión de esta mañana la partida presupuestaria para la ejecución de una serie de obras que contribuyan a mejorar la accesibilidad y salvar las barreras arquitectónicas entre la Plaza de la Cantera y la calle de la Concepción, en el barrio de San Francisco.

Se trata de un ámbito cuya unión actualmente se realiza a través de una tramada de escaleras con un total de 57 escalones.

En concreto se han reservado **3.196.403,06 euros** (IVA incluido) para un proyecto que saldrá a licitación en los próximos días y, una vez se adjudique y se inicien las obras, tendrá un **plazo de ejecución de once meses**.

ASCENSOR PANORÁMICO VERTICAL

Los trabajos previstos contemplan la ejecución de un elemento panorámico vertical ubicado entre la Plaza de la Cantera y la calle Concepción que salvará un **desnivel de 9,65 metros** de altura. Contará con **dos paradas a 180º** y **el desembarco de la parada superior se realizará a través de una pasarela de 8 metros**.

La capacidad de la cabina será para **13 personas** y se materializará mediante un núcleo vertical, resuelto con estructura metálica y recubierto de vidrio laminado.

Además de las estructuras propias del ascensor, para habilitar el espacio en el que éste se va a ubicar, se proyecta la ejecución de muros de hormigón armado encofrados y cimentados sobre micropilotes.

El ascensor estará dotado de un **sistema de videovigilancia** y se dispondrán **pasamanos y barandillas** de protección tanto en todas las escaleras del ámbito como en los caminos de salida del ascensor. Además, se reforzará la iluminación en su entorno a través de proyectores y luminarias tipo LED.

REURBANIZACIÓN DE LA CALLE CONCEPCIÓN

Las obras del ascensor se ejecutarán de manera **secuencial** con la reurbanización de la calle Concepción, en el tramo comprendido entre las calles Mina de San Luis y Agarre.

En este entorno **se renovará la pavimentación** –tipo ‘Bilbao’ salvo en las zonas de señalización de los pasos de peatones y accesos a los ascensores y escaleras, donde se colocará baldosa táctil–, **así como los bordillos**, que serán de granito, al igual que las nuevas escaleras que se ejecuten en el ámbito.

Además, **los caminos peatonales** entre las zonas de juegos infantiles, elementos biosaludables y zonas ajardinadas de este tramo de la calle Concepción **se resolverán en asfalto fundido pulido**.

Se generarán zonas verdes y se sustituirá el mobiliario urbano y las redes de servicios. Asimismo se instalarán nuevos elementos de juegos infantiles y biosaludables, en cuyas superficies se habilitará pavimento de caucho.

PLAN ZUBIRIK

La ejecución de estas obras de mejora de la accesibilidad en el Distrito 5 de Ibaiondo se enmarca dentro del **Plan Zubirik**, que tiene una previsión de inversión de 7,3 millones de euros para mejorar la calidad de vida de las personas que residen en Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala.

Liderado por el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao, el Plan Zubirik 2025 está alineado con la [Carta de Valores \(Bilbao Baiioen Hiria\)](#) y los [Objetivos de Desarrollo Sostenible \(ODS\) de la Agenda 2030](#), y se enmarca en el compromiso adquirido por Bilbao como miembro de la [Red Estatal de Ciudades Interculturales \(RECI\)](#) para fomentar la igualdad, el respeto y reconocimiento de la diversidad, la interacción positiva y la convivencia a través de programas e iniciativas que pongan en valor la convivencia intercultural.

REDES SOCIALES

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)